

Zuzenketarako koaderno

2
0
1
2
/
1
3

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. MAILA

HIZKUNTZA GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

YEZOUMA

Bondokui herrira iritsi naizenetik, Yezouma Koulibali ia nire itzala izan dela esan liteke. Ziurrenik herriko nagusiaren seme zaharrena delako hartu du ardura hori. Agian ohiturak behartuta, agian gogo onez. Ezin asmatu, bere begitarte goibelari erreparatuta. Edonola ere, gizon gazte horri esker toki eta jende mordo ezagutu dut herri txiki honetan arratsaldean zehar. Chambre de passage-ra eraman nau lehenengo nire gauzak uztera. Gero bere gurasoak ezagutzera joan gara; alfer itxurako aita lodia aulkitik mugitu ere ez da egin begirunez agurtu dudanean; amak, oster, to platerkada jaten eta berak egindako dolo garagardoa probatzen gonbidatu nau. Gero meskita zahar eta berriak ikustera eraman nau Yezoumak, eta jarraian animisten auzora, lurperatzaileen auzora, herriko irakaslearen etxera, gustuko duen neska baten ile-apaindegira...



Arratsaldea joan zaigu horrela, batetik bestera, eta ilundu duenean agian ohera goiz joan beharko genuela pentsatu dut, are gehiago Bondokuin elektrizitaterik ez dagoela kontuan hartuta. Oker nengoen, baina:

- Ez duzu partidua ikusi nahi? –esan dit Yezoumak “eta orain zer?” galdetu diodanean.

Ni ez nintzen gogoratzen zein egun berezia zen gaur, baina bera bai: Burkina Fasoko selekzioaren debuta Afrikako kopan!

- Bondokuin ikusterik badago? –galdetu diot, harrিতuta.
- Noski. Nire anaia Nicola lokal bat prestatzen ari da horretarako, ekipo elektrogeneoa eta telebista lortu ondoren. Nahi baduzu bertan ikusiko dugu.



Idea ona iruditu zait eta harantz abiatu gara.

Nicolak edaritegi txiki bat dauka herrian, behar dituen irabaziak ematen dizkiona, soberan antza, baina ekimen handiko pertsona ere badela erakutsi du gaur, probetxua ateratzen dakiena sortzen diren aukeretatik. Izan ere, tabernatxoaren atzeko patioa itxi egin du alde guztietatik, telebista kokatu du aurreko aldean, eskuratu ahal izan dituen aulki guztiak ipini ditu hari begira eta, azkenean, areto txukuna atondo du gaurko ikuskizunerako. Bertan sartu nahi zutenei ehuna CFA kobratu die eta lepo bete zaio lokala.

Sarreraren prezioa barkatu ez, baina jesartzeko aulkitxo bana, sikera, lortu dizkigu Yezoumaren anaiak, eta hantxe paratu gara, bigarren ilaran, telebista handitik gertu samar. Partidua hasi denetik, jokoaren kalitatea gorabehera, interesgarriena bertan pilatutako jendetzaren sustu nahiz emozio aurpegierak aztertzea izan da, baita irtenaldi bitxiak entzutea ere. Denbora gehiago eman dut alboetara edo atzera begira telebistara baino, eta futbol kontuetan, behintzat, munduko zale gehienak berdintsuak direla deliberatu dut, zein baino zein memeloago eta itsuago.

Ez da golik egon, baina egon balitz ere nekez jabetuko ginen, antenarena egin behar zuen teilatuko makilak ez baitzuen seinale garbirik harrapatzen, eta ia kanal kodifikatua legez ikusi edo imajinatu behar izan baititugu laurogeita hamar minutuak, argi aditzen zen esatariaren ahotsaren laguntzaz, behinik behin.



Edonola ere, inork ez du kexarik adierazi, inori ez zaio bururatu dirua bueltatzeko eskatzea, eta poz-pezik atera dira denak Nicolaren lokaletik partidua amaitutakoan, berriketarako gogotsu, Burkina Fasoko jokalariek, “Zalditzarrek” ezizenez, aurre egin diotelako kemen handiz Afrikako Kopa irabazteko faborito nagusienetakoa den Senegali.

Yezouma bera izan da, agian, kilikadura gutxien erakutsi duena partiduan zehar zein amaieran. Bururatu zait bere kezka bakarra bisitaria Bondokuin dagoen bitartean gustura ibiltzea izango zela. Eta ziurrenik hori hala da, baina alaitasuna eragozten dion zerbait ere baduela ohartu naiz.

Jon Arretxe (Egokiturik)

1. CFAk zer esan nahi du?

- A. Afrikako Kolonia Frantsesa
- B. Amerikako Kolonia Frantsesa
- C. Afrikako Kopa Frantsesa
- D. Afrikako Kopa Famatua

2. Narratzaileari futbola asko gustatzen zaio? Eman bi arrazoi zure erantzuna justifikatzeko.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Ikasleak baietz erantzuten du.
1	1	Ikasleak ezetz erantzuten du eta arrazoi bat ematen du.
2	2	Ikasleak ezetz erantzuten du eta bi arrazoi aipatzen ditu, ondorengo hauetatik: I. Munduko zale gehienak memeloak eta itsuak direla uste du (<i>munduko zale gehienak berdintsuak direla deliberatu dut, zein baino zein memeloago eta itsuago</i>). II. Partiduko gauza interesgarriena jendearen erreakzioak ikustea dela dio (<i>...interesgarriena bertan pilotutako jendetzaren sustu nahiz emozio aurpegierak aztertzea izan da, baita irtenaldi bitxiak entzutea ere</i>). III. Futbol partiduari begira denbora gutxi pasa duela dio (<i>...Denbora gehiago eman dut alboetara edo atzera begira telebistara baino...</i>).

3. Komatxoak testuan bi aldiz ageri dira. Zertarako erabiltzen dira kasu bakoitzean?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Ikasleak kasu bat jaso du, zertarako erabiltzen den aipatuz.
2	2	Ikasleak bi kasuak jaso ditu, bakoitzean komatxoak zertarako erabiltzen diren aipatuz: <ul style="list-style-type: none"> • “eta orain zer?”: Hitzez hitzeko esaldia dela adierazteko. • “zalditzarrek”: Ezizena aipatzeko, hitza modu berezi batean erabiltzen dela adierazteko.

4. Zergatik ageri da CFA maiuskulaz?

- A. Bertako txanponaren izena izen berezia delako.
- B. Bertako txanponaren izenaren laburdura delako.
- C. Idazleak horrela idatzi nahi duelako.
- D. Afrikan diruaren izena maiuskulaz idazten delako.

5. Partidua ikusteko aukera ona ala txarra izan da? Zure erantzuna arrazoitu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea. <ul style="list-style-type: none">• <i>Afrikan daude.</i>• <i>Futbola ez zuten gustuko.</i>• ...
1	1	Ikasleak aukera ona edo txarra izan dela erantzuten du, eta gutxienezko argudio bat ere ematen du. Adibidez: <ul style="list-style-type: none">• <i>Txarra, telebistak seinale txarra zuelako</i>• <i>Txarra, antenaren tokian makil bat zutelako.</i>• <i>Txarra, partidua ezin zelako ikusi, nahiz eta ongi entzun.</i>• <i>Txarra, dirua ordaindu dutelako eta ez dutelako ikusi.</i>• <i>Ona, halako toki batean telebista ikustea zaila delako.</i>• <i>Ona, partidua ikusteko aukera izan dutelako.</i>• <i>Ona, partidua entzun dutelako, behintzat.</i>• <i>Txarra eta ona. Txarra telebista ez zelako ikusten, eta ona entzuten zelako.</i>• <i>Txarra, partidua ezin zelako ikusi.</i>• ...

6. Irakurri duzunaren arabera, Bondokuiko biztanleak esker onekoak dira?

- A. Ez, dirua bueltatzeko eskatu dutelako partidua ez zelako ongi ikusten.
- B. Ez, kexa adierazi dutelako partidua ez zelako ongi ikusten.
- C. Bai, ordaindu eta gero partidua gaizki ikusi duten arren, poz-pozik atera baitira.

D. Bai, sarreraren prezioa barkatu dietelako.

7. Zein lurraldetan dago Bondokui?

- A. Burkina Fason
- B. Senegalen
- C. Tangerren
- D. Nigerian

8. Zenbat ordaindu dute narratzaileak eta Yezoumak partidua ikusteagatik?

- A. Ez dute ezer ordaindu, ez zelako ongi ikusten.
- B. Berrehun CFA, zegokiena.
- C. Hirurehun CFA, bigarren ilaran esertzeagatik.
- D. Berrogeita hamar CFA, Yezouma Nicolaren anaia izateagatik.

Megahiriak

Mundua gero eta hiritarragoa

Hirietan bizitzeko aukera egin dugu gizakiok azken ehun urteotan. Azkeneko berrogei urteetan, munduko populazioa bikoiztu egin da; hirietan bizi direnen kopurua, berriz, bost aldiz handitu da. Zazpi mila milioi lagun gara munduan, eta erdia baino gehiago hirietan bizi da. Hiritarren hamarretik bat, gainera, 21 hiritan baino ez da bizi. Megahiriak dira 21 horiek, hamar milioitik gorako populazioa dutenak. Biztanle-kopuruak ez ezik, hirietako jendearen baliabideek ere izugarritzko eragina dute hirien garapenean. Hala, modu batera edo bestera eboluzionatzen dute hiriek. Bizidunak balira bezala.



1950. urtean, bi megahiri zeuden munduan: New York eta Tokyo. Handik 25 urtera, hirugarren bat sartu zen hiri handien zerrendan: Mexiko Hiria. Gaur egun (Nazio Batuen *World Urbanization Prospects* txostenaren 2009ko berrikuspenaren arabera), Tokyok jarraitzen du izaten biztanle gehien dituen hiria, eta beste 20 hirik osatzen dute munduko megahirien zerrenda.

Fenomeno naturaltzat jotzen dute adituek munduko hiri jakin batzuek halako hazkundera izatea. Erakarpen-indar hori garatze-bidean dauden herrialdeetan bereziki indartsua dela zehaztu du Arkitektura Eskolako Koldo Telleria irakasleak: "iman bat bezalakoak dira landa-eremuetan bizi direnentzat: dirua, autoak, aukerak... telebistan ikusten diren gauza guztiak hirietan daude, landa-lurra ez baita ezer garatu".

Horregatik, azkeneko 30 urteotan gehien hazi diren hiriak eta sortu diren megahiri gehienak Asian eta Afrikan sortu dira batez ere, garatze-bidean dauden herrialdeetan.

Kontzeptu bat, bi hiri-mota.

Herrialde jakin batek dituen ezaugarri ekonomikoek, sozialek, politikoez eta abarrek bultzatuta garatzen dira hiriak. Ezaugarri horiek erabat desberdinak direnez herrialde garatuetan eta garatze-bidean daudenetan, bateko eta besteko megahiriak ere guztiz desberdinak dira.

Bi hiri-moten arteko desberdintasun nagusia bat dela uste du Fernando Bajo arkitektoak: "plangintza. Herrialde garatuetan hirigintza-planetan oinarrituta sortzen dira hiriak, eta, horri esker, modu gutxi gorabehera ordenatuan garatzen dira. Garatze-bidean dauden herrialdeetan, berriz, ez dago plangintzarik".

Delhin bizi izan dute, esate baterako, plangintzatik haragoko garapena. Txaboletan antolatuz joan dira landa-eremuetatik hirira joandako biztanleak, eta, Delhiko gobernuak 2000. urtean argitaratutako txosten batean zioenez, 1970. urtetik aurrera "kudeatu ahal izateko handiegia bilakatu zen" hiriaren inguruan sortutako txabola-mordoa eta bildutako jendetza. *Jhuggi jhopri* esaten diete txabola-auzoetan bizi direnei. "Elkarrekin pilatuta egon ohi dira txabolak *Jhuggi jhopri*-en auzoetan, higienekondizio txarretan, eta ez dute izaten edateko urik". Delhiko gobernuak txabola horietan egindako azkeneko ikuskapenean kalkulatu du (2008-2009 tartean egin zuen) 4.390 txabola-auzo daudela Delhin, eta 577.000 familia bizi direla haietan.

Etorkizunean, izango ote da mugarik?

Hiriak bizidunak bezalakoak direla jotzen da, hango ezaugarriekin eta biztanleekin batera eboluzionatzen dutelako. Bada, benetako bizidunak bezala, neurri jakin bateraino bakarrik haz daitezkeela uste dute adituek. Tokyo, adibidez, ez dirudi gehiegi haziko denik hemendik 2025. urtera bitartean (37,1 milioira pasako dela aurreikusi du Nazio Batuen erakundeak).

Hiria antolatzeko planifikaziorik ez dagoenean, berriz, zailagoa da oreka-puntu horretara modu ordenatuan iristea, askoz kaotikoagoa baita hiria, berez.

New York, denetan lehena


20 estatubatuarretatik bat New Yorken bizi da. 19 milioiko populazioa du gaur egun, eta seigarrena da munduko hiri handien zerrendan. 1950eko zerrendan, berriz, lehenengoa zen. Hain zuzen, New York izan zen 10 milioiko ataria gainditu zuen lehenengo hiria, lehenengo megahiria.

Tokyo, handietan handiena

Tokyoko hazkundera 1950etik hona gertatu da: 25 urtean, 1950ean zuen populazioa halako bi eta erdi izateraino handitu da, eta, 2009. urterako, beste 10 milioi biztanle gehiago zituen. Horrenbestez, 1975. urtean hartu zuen hiri handien lehen postua. Nazio Batuen erakundeak 2025. urterako egin duen aurreikuspenean Tokyon "bakarrik" 600.000 lagun gehiago izango dituela aurreikusi du.

Dhaka, abiadura bizian

Une honetan, munduko populazioa non hazten ari den adierazteko adibide ezin hobea da Dhaka. Izan ere, 1975-2009 aldian hazkunde handiena izan duen hiria da: 2 milioi biztanle izatetik 14 milioi biztanle izatera pasatu da. Nazio Batuen datu-basean begiratuta, ikus daiteke 1975. urteaz gero bost urtean behin bi milioi biztanle gehiago hartu dituela Dhakak. Eta, aurreikuspenek diotenez, martxa horretan jarraituko du.



Populazioa (milioi biztanle)		Populazioa (milioi biztanle)	
1	Tokyo, Japonia	36,5	
2	Delhi, India	21,7	
3	Sao Paulo, Brasil	20,0	
4	Mumbai (Bombai), India	19,7	
5	Mexiko Hiria, Mexiko	19,3	
6	New York, Estatu Batuak	19,3	
7	Shanghai, Txina	16,3	
8	Kalkuta, India	15,3	
9	Dhaka, Bangladesh	14,3	
10	Buenos Aires, Argentina	13,0	
11	Karatxi, Pakistan	12,8	
12	Los Angeles, Estatu Batuak	12,7	
13	Beijing, Txina	12,2	
14	Rio de Janeiro, Brasil	11,8	
15	Manila, Filipinak	11,4	
16	Osaka-Kobe, Japonia	11,3	
17	Kairo, Egipto	10,9	
18	Mosku, Errusia	10,5	
19	Paris, Frantzia	10,4	
20	Istanbul, Turkia	10,4	
21	Lagos, Nigeria	10,2	

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa. Egokitua.

9. Izenburuak zergatik dio **mundua gero eta hiritarragoa** dela?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Hirietan bizi den populazioa handituz doalako. Munduan, populazioaren erdia baino gehiago hirietan bizi delako.

10. Munduko hiri handiena da...

- A. Lagos
- B. Tokyo
- C. New York
- D. Mexico

11. Lehen megahiria izan zen...

- A. Tokyo, bere hazkundea 1950etik hona gertatu delako.
- B. Mexiko Hiria, *World Urbanization Prospects* txostenaren arabera.
- C. Delhi, kudeatu ahal izateko handiegia bilakatu zelako.
- D. New York, bera izan baitzen hamar milioiko ataria gainditu zuen lehena.

12. Normalean non hazten dira hiriak gehien?

- A. Garatze-bidean dauden herrialdeetan
- B. Herrialde garatuetan
- C. Europan
- D. Kontinente guztietan berdintsu

13. Zer esan nahi du **Kontzeptu bat, bi hiri mota** izenburuak?


.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	<p>Erantzun okerra edo osatu gabea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Garatze bidean dauden herrialdeetan ere garatzen dira megahiriak.</i> • <i>Garatze bidean dauden herrialdeetako megahiriak txabola-auzoak dituzte.</i> • ...
1	1	<p>Kontzeptu bat: megahiriak, megahirien garapena. Herrialde garatuetan eta garatze bidean daudenetan megahiriak garatzen ari dira.</p> <p>Bi hiri mota: megahiriak modu desberdinean ari dira garatzen. Herrialde garatuetan hirigintza planak dituzte eta modu ordenatuan ari dira garatzen, eta garatze bidean dauden herrialdeetan hirigintza planik gabe (Delhin, adibidez, txabola mordoa dago).</p> <p>Ontzat emango dira bi hiri mota horiek desberdintzen dituzten erantzunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Herrialde garatuetan eta garatze bidean daudenetan megahiriak modu desberdinean ari direla garatzen.</i> • <i>Garatze bidean dauden herrialdeetan hiriak eta megahiriak modu desordenatuan ari dira garatzen.</i> • <i>Herrialde garatuetan hirigintza planak dituzte, eta garatze bidean dauden herrialdeetan ez.</i> • <i>Garatze bidean dauden herrialdeetan hiriak azkarrago hari dira hazten, eta garatuetan polikiago</i> •

14. *Jhuggi jhopri* delakoak dira...

- A. Txabola-auzoak
- B. Txabola mota bat
- C. Txabola horietako biztanleak
- D. Etxebizitza txikiak

15. Grafiko hauetatik zein dagokio Dhaka hiriari?



- A. A grafikoa
- B. B grafikoa
- C. C grafikoa
- D. D grafikoa

16. Hemen dituzu New York eta Dhakarentzako, 2025. urterako, egin diren bi populazio aurreikuspenak:

	Gaur egungo populazioa (milioi biztanle)	Populazio aurreikuspenak 2025 urterako (milioi biztanle)	
		A	B
New York	19,3	20,6	32,5
Dhaka	14,3	22	14,5


Zein iruditzen zaizu fidagarriena? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	<p>Erantzun okerra edo osatu gabea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>B aurreikuspena.</i> • <i>B aurreikuspena, bi hiriak haziko dira.</i> • ...
1	1	<p>Ikasleak fidagarriena A aurreikuspena dela adierazten du, baina ez du horren arrazoirik ematen edo ematen duen arrazoia okerra edo osatugabea da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>A aurreikuspena.</i> • <i>A aurreikuspena, bi hiriak asko hazten direlako.</i> • <i>B aurreikuspena ez da fidagarria [B aurreikuspena saihesten du]</i> • ... <p>Berdin jokatu da ikasleak aurreikuspen fidagarrienik aipatzen ez duenean, baina arrazoia zuzen ematen duenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Dhaka planifikaziorik gabe hazten ari da eta asko haziko delako.</i> • <i>New York hiri garatua da, planifikatua, eta ezin da asko hazi.</i> • ...
2	2	<p>Ikasleak A aurreikuspena fidagarriena dela adierazten du, eta horren arrazoia ematen du (hiri garatuak eta ongi planifikatuak gutxi hazten ari dira, eta planifikaziorik ez dagoenean asko hazi daitezke).</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>A, New York gutxi haziko da (hiri garatuekin gertatzen ari den bezala), eta Dhaka asko hazi daiteke (garatze-bidean dauden hiriak bezala).</i> • <i>A aurreikuspena. B aurreikuspenean Dhaka ez da hazten, baina planifikaziorik gabeko hiria da eta asko haziko da.</i> • <i>A aurreikuspena. B aurreikuspenean New York hiria gehiegi hazten da, baina hiri planifikatua eta garatua denez ez da asko haziko.</i> • <i>B aurreikuspena ez da fidagarria, New York hiri garatua baita eta ezin da hainbeste hazi.</i> • <i>A aurreikuspena, logikoena Dhaka asko haztea baita.</i> • ...

17. Testuko grafikoan, zergatik ageri dira zenbaki gainean tamaina ezberdineko zutabeak?



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Tamainak populazioari erreferentzia egiten dio. Zenbat eta populazio handiagoa izan, orduan eta zutabe handiagoa izango da.

BERTSO BERRIAK

Aitor Sarriegi Galparsoro

Bertso berriak, #saresozial-ei @asarriegi-k jarriak



DANI BLANCO

I

Konta dezadan zenbait bertsotan azken urteon laburpen bezala edo sare sozialek nola eragin diguten, gure bizitza retransmititzen Twitterren eta Facebooken, batzuk ia-ia kontaktzen dute pixa noiz egiten duten.

II

Norekin gauden non eta zertan, noiz goazen oportetan, norekin gauden maiteminduta eta norekin zorretan, hau "Atsegin dut" eta klikatu horko bideo horretan... bizi erdia pasatzen dugu gure "Horma"ren obretan.

III

Han dago gure iruzkin sorta eta argazki andana, haserraldiak, pozak, tristurak... bakoitzeko mezu bana. Gure etxea ireki dugu mundu osoarengana ta irtetea atea giltzaz ixteko hartzen dugu lana.

IV

Askatasunen defendatzaile nola ez gara izango gu! Baina urratu nahi direnean badaude hamaika modu. Geuk zuzenean jarri gabea beste batek jarriko du... Lehen poliziak galdetzen zigun, gaur guk kontaktzen diogu.

V

Gure mundutxo birtualean ez dugu ikusten gaitzik, ez da gainera hori den bezain harreman-sare errazik. Ez dut esaten ez ibiltzeko sare sozialetan kasik, zer eta nola idazten dugun kontuan hartzeko baizik.

VI


Sorta txiki hau bukatu nahi dut mezu txiki bat bidaliz, ez dagoela zertan itsutu aldatu arren gizaldiz. Uste baduzu esageratu dudala ta alde handiz, sartu Google-en zure izena eta pentsatu bi aldiz.

DOINUA: Andre txarren bentajak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

18. Zer esan nahi dute III. estrofako hitz hauek?



.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	<p>Ikasleak, nolabait, estrofako hitz horiek paradoxa edo kontraesana adierazten dutela erantzuten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Kontraesan bat da.</i> • <i>Etxeko atea ixten dugu, baina beldurrik gabe zabaltzen dugu gure intimitatea.</i> • <i>Etxea ixten dugu, baina gero ez dugu mugarik jartzen sare sozialetan idaztean.</i> • <i>Gure etxea ixten dugu, okerrik ez izateko, eta gero, ohartu gabe, Interneten edo Sarean den dena erakusten dugu.</i> • <i>Gure etxeko atea ixten dugu, baina ez gara ohartzen erabat irekita dagoela, Sarean mugarik gabe gabiltzalako.</i> • <i>Gure etxeko gauzak lapurtu ahal dizkigute, eta baita gure argazkiak, gure intimitatea, eta abar.</i> • <i>Beldurrik gabe ibiltzen gara Interneten, eta gero, beldurrez, etxeko atea ixten dugu.</i> • ... <p>Ontzat emango dira erantzun errazagoak ere, adibidez, Sarean edota Interneten zuhertasunik gabe gabiltzala adierazten duten erantzunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Etxea irekita dugula, sare sozialetan gabiltzalako</i> • <i>Sare sozialetan gehiegi gabiltzala, asko zaindu gabe.</i> • <i>Mugikorrekin eta abar kontu handiagorekin ibili behar dugula.</i> • ...

19. Zergatik erabiltzen ditu @ eta # sinboloak izenburuan?

- A. Helbide elektroniko bat delako.
- B. Bertso zaharrekin zerikusia dutelako.
- C. Web orrialde baten helbidea delako.
- D. Sare sozialekin zerikusia dutelako.

20. Zure ustez 65 urteko pertsona batek ongi ulertuko ditu bertso hauek? Zure erantzuna arrazoitu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea. <ul style="list-style-type: none">• <i>Ez</i>• <i>Bai</i>• <i>Auskalo</i>• ...
1	1	Ikasleak gutxienezko argudio bat ematen du, adibidez: <ul style="list-style-type: none">• <i>Pertsona hori sare sozialean ibiltzen bada bai.</i>• <i>Ez, teknologi berriak ezagutu behar dira, testua behar delako behar bezala ulertzeko.</i>• <i>Bai, Interneten ibiltzen bada eta mundu teknologikoa ezagutzen badu.</i>• ...

21. Nor da testu horren hartzailea?

- A. Bertsoak gustuko dituen edonor eta gaiaz zerbait dakien pertsona.
- B. Informatika teknikariak.
- C. Sare sozialei buruz ikastaro bat egin behar duten pertsonak.
- D. Bertsoak gustuko dituen edonor.

22. Batzuetan “eta” eta beste batzuetan “ta” erabiltzen du. Zergatik?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Bertsoetan silabak kontatzen direlako eta, beharrezkoa denean, ahozko hizkuntzan erabiltzen ditugun formak erabiltzea zilegi delako. <ul style="list-style-type: none">• <i>Neurrira moldatzeko.</i>• <i>Silaba kopurura egokitzeko.</i>• <i>Bi forma horiek, konkretuki, erabili daitezkeelako</i>•

23. Zer egin behar da aldizkari horretan bertsoen bat argitaratzeko?

- A. Twitterren mezu bat idatzi.
- B. Mezu elektronikoa bat bidali goiko aldean aipatzen den pertsonari.
- C. Behean ageri den helbidera idatzi.
- D. Facebookera bertsoak igo.

24. Zein da Aitor Sarriegiren helburua?

- A. Twitterren eta Facebooken parte nola hartzen den erakustea.
- B. Sare sozialetan ez ibiltzeko gomendioa ematea.
- C. Sare sozialetan arduraz ibiltzearen garrantzia azpimarratzea.
- D. Bertso berriak bertso zaharrekin konparatzea.

25. Zer esan nahi dute argazkiaren eskuineko aldean ageri diren “Dani Blanco” hitzek?

- A. Argazkian dagoena Dani Blanco dela.
- B. Bertsoak berak idatzi dituela.
- C. Argazkilaria Dani Blanco dela.
- D. Argazkia atera duen dendaren izena dela.





Sylvia Earle

National Geographic-eko ozeanografoa

"Edonork jantz dezake maskara eta urpean sartu, eta pentsatzeko modua aldaraziko dioten gauzak ikusiko ditu"

Aukera txikiena ere aprobeztatzen du Sylvia Earle ozeanografoak, gizakiak ozeanoetan egin dituen hondamendiak salatzeko eta ozeanoak zaintzearen garrantzia eta beharra aldarrikatzeko. Izan ere, bertatik bertara ikusi ditu gizakiok eragindako txikizioak, ozeano sakonera iristeko eta han ikerketak egin ahal izateko teknologiak garatzen eta erabiltzen jardun baitu bere ikertzaile-ibilbide osoan.

Zer eboluzio izan du ozeanoak aztertzeo teknologiak?

Urpean igeri egiten hasi nintzenean, 1950eko hamarkadan, nire herrialdean, Estatu Batuetan, urpekaritza-ekipo bat erabili zuen lehenengo pertsonetako bat izan nintzen. Baita urpean bizi izan zen lehenengoetako bat ere; bederatzia aldiz egin dut hori. Eta 30 itsaspeko-mota baino gehiago erabili ditut. Horietako bakar bat ere ez zen existitzen XX. mendearen erdia baino lehen.

Teknologia berriak orain arte ikusterik ez genuena ikusteko aukera ematen ari zaizkigu. Adibidez, ni haurra nintzenean, ez genekien Ozeano Atlantikoan, Pazifikoan eta Indikoan mendikateak zeudela; ez ginen jabetzen ozeanoek klima eta eguraldia gidatzen dituztela.



Orain ulertzen dugu ozeanoa ezinbestekoa dela Lurreko bizi guztirako, baita gure bizirako ere, noski. Halaber, lehen aldiz ulertu dugu zer gaitasun dugun ozeanoak aldatzeko, ozeanoetara botatzen dugunaren eta haietatik ateratzen dugunaren bidez. Hala, bada, urte gutxian ikusi dugu koral-arrezifeek gainbehera egin dutela (dagoeneko erdiak desagertu dira edo egoera larrian daude), eta arrain handien % 90 desagertu egin direla, oso onak garelako haiek aurkitzen, harrapatzen eta jaten.

Esaten da gehiago dakigula Ilargiari buruz ozeano sakonari buruz baino...

Ilargiko, Marteko eta Jupiterko mapa hobeak ditugu gure planeta honetakoak baino; bereziki ozeanoari dagokionez. Zentzugabea da ozeanoaren % 5en mapak baino ez izatea Ilargikoak eta Martekoak bezain doitasun handikoak. Ez da onargarria. Eguzki-sistemaren zati hori ulertu beharra dugu, unibertsoaren zati hori. Gure etxea da! Gure etxe bakarra!

Zein da uretan ikusi duzun gauzarik liluragarriena? Bizidunen bat, bistaren bat...

Ozeanoetan ikusten den aldaketa da ozeanoetan ikusi dudana gauzarik liluragarriena. Gustuko dut ozeanoan barrura itsaspekoetan joatea, arnasari eutsiz edo urpekaritza-ekipoak erabiliz baino beherago iristen

bainaiz. Urpekaritza-ekipoak erabilia, badakizu, 50 bat metrora iritsi naiteke, eta hori asko da. Itsaspekoekin, berriz, lau kilometro ere egin ditzaket behera.

Ziur gauza beldurgarriak ere ikusi dituzula, ikaratu zaituztenak...

Ozeanoan ikusi dudana gauzarik beldurgarriena arrantza suntsigarriak eragindako kaltea izan da. Esate baterako, arraste-arrantzarako ontziek eta dragek itsas hondoa txikitu dute, eta behinola belakiak, koralak eta haiei lotutako arrainak zeuden lekuan jadanik ez dago ezer. Akabo! Nabarmena da. Planetaren bihotz urdina da, nire ustez, ozeanoa. Gure bihotza zaindu behar dugu, eta ez hura suntsitu.

Demagun erabakiak hartzeko eskumena duzula, eta munduko baliabide guztiak kudea ditzakezula. Zer erabaki hartuko zenuke?

Sistema naturala zaindu behar dugu: basoak, arro hidrologikoak, ibaiak... basa bizia. Eta ez luxu bat delako, ezta aukera bat delako ere, gure bizirako ezinbestekoa delako baizik. Azken batean, gure bizitza oxigenoa ematen diguten sistemetara lotuta dago; arnasten dugun oxigenoaren % 70 ozeanotik dator, itsasoan dauden bizidun berde eta urdin-berde txiki batzuetatik. Oxigenoa sortu ez ezik, karbonoa harrapatu ere egiten dute. Karbonoaren zikloaren parte dira, oxigenoaren zikloarena, uraren ziklo osoarena. Bizirik iraunarazten digun guztiaren parte!

Zer iritzi duzu itsasoko ura gatzgabetzeko plan handiei buruz, Saharako adibidez?

Une honetan, ez gara behar bezala erabiltzen ari ur geza. Ziur naiz bide hobeak daudela ozeanoko ura hartu eta ur hori ur geza eta gatz bihurtzea baino, eta bidean bizia suntsitzea baino. Oraindik garaiz gabiltza nola eutsi aurkitzeko. Bizirik irauteko une erabakigarrienean gaude; izan ere, orain hartuko ditugun erabakiek, datozen hamar urteetan hartuko ditugun horiek, datozen 10.000 urteetan izango dute eragina.

Orain da uea asmo onak martxan jartzeko, teknologia energia-irtenbide hobeak asmatzera bideratzeko, urarentzat irtenbide berriak garatzeko, planeta urdin magiko hau, dugun etxe bakarra, erabiltzeko eta zaintzeko. Inoiz ez bezalako aukera dugu orain, eta, agian, bakarra.

Egileak: Oihane Lakar Iraizoz eta Nagore Rementeria Argote. Elhuyar Zientziaren Komunikazioa (Egokitua)

26. Sylvia Earle urpekaritza-ekipo bat erabili zuen lehen pertsona izan zen?

- A. Amerikako lehenengoa izan zen.
- B. Estatu Batuetako lehenengoa izan zen.
- C. Mundu osoko lehenengoa izan zen.
- D. Ez dakigu.



27. Silvia Earlek aipatzen ditu gizakiak ozeanoetan eragindako kalte handi batzuk. Eman itzazu 2 adibide.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	<p>Hauetariko bi adibide:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Korral arrezifeek gainbehera egin dutela “Hala, bada, urte gutxian ikusi dugu korral-arrezifeek gainbehera egin dutela (dagoeneko erdiak desagertu dira edo egoera larrian daude)...” 2. Arrain handien %90 desagertu egin direla “...eta arrain handien % 90 desagertu egin direla, oso onak garelako haiek aurkitzen, harrapatzen eta jaten”. 3. Itsas hondoa txikitzea eta belakiak, korralak eta haiei lotutako arrainak desagerraraztea. “Ozeanoan ikusi dudak gauzarik beldurgarriena arrantza suntsigarriak eragindako kaltea izan da. Esate baterako, arraste-arrantzarako ontziek eta dragek itsas hondoa txikitu dute, eta behinola belakiak, korralak eta haiei lotutako arrainak zeuden lekuan jadanik ez dago ezer. Akabo! Nabarmena da”.

28. Espazioko mapekin alderatuta, ozeanoko mapa onak ditugu?

- A. Ozeanoko mapak Ilargikoak baino hobeak dira.
- B. Ozeanoko mapa gutxi dira Ilargikoak bezain doitasun handikoak.
- C. Ozeanoko mapa asko dira Ilargikoak bezain doitasun handikoak.
- D. Jupiterreko mapak hoberenak dira.

29. Ozeanoak ikertzeko zein baliabide da egokiena?

- A. Urpekaritza-ekipoak
- B. Itsaslabarrak
- C. Itsasontziak
- D. Itsaspekoak

30. Ehun metrora dagoen hondoa urpekaritza-ekipo batekin azter daiteke?

- A. Ez, 50 bat metrora jaisten ahal zarelako.
- B. Bai, ekipo egokia delako.
- C. Ez, 75 metrora jaisten ahal zarelako.
- D. Bai, 100 metrora jaisten ahal zarelako.

31. Harridura ikurrak ageri dira behin baino gehiagotan. Zergatik?

- A. Irakurlearen interesa pizteko.
- B. Idazleari horrela gustatzen zaiolako.
- C. Elkarrizketatua harriduta dagoelako.
- D. Elkarrizketatuak bizi dituen sentrazioak azaltzeko.

32. Nolako testu mota da?

- A. Azalpenezkoa, ozeanoko bizitza azaltzen duelako.
- B. Deskribapenezkoa, ozeanoko bizitza deskribatzen duelako.
- C. Argudiozkoa, bere iritzia ematen duelako ozeanoko bizitzari buruz.
- D. Instrukziozkoa, ozeanoa salbatzeko zer egin behar dugun azaltzen duelako.

33. Sylvia Earlek zera dio: “planetaren bihotz urdina da ozeanoa”. Zer esan nahi dute hitz horiek?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea. <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ozeanoak urdinak direlako</i> • ...
1	1	Ikasleak ozeanoek Lurraren edo planetaren bizitzarako duten garrantzia azaltzen du: <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ozeanoak ezinbestekoak edo oso garrantzitsuak direlako Lurrarentzako eta ozeanoak urdinak direlako.</i> • <i>Arnasten dugun oxigenoaren %70a ozeanotik datorrelako, eta ozeanoak urdinak direlako.</i> • <i>Ozeanoak planetaren edo Lurraren bizitzarako ezinbestekoak direlako.</i> • <i>Konparaketa egiten du, gorputzarentzat bihotza oso garrantzitsua da, eta Lurrarentzat oso garrantzitsuak dira ozeanoak.</i> • ...

34. Itsasoko ura gatzgabetzeko plan handien alde dago Sylvia Earle?

- A. Bai, gero eta biztanle gehiago gaudelako munduan.
- B. Bai, teknologia hobeak erabiliz gero.
- C. Ez, gatzgabetzeko prozesuan bizitza suntsitzen dugulako.
- D. Ez, datozen hamar urteetan ez, baina gero bai.